

2014ko uztaila

Errespetua entzun

Atzerrira joatea premiazkoa da. Leku eta pertsona ezberdinak ezagutzeko, ohitura eta kultura berrietan murgiltzeko eta, batez ere, norbere burua hobeto ezagutzeko aukera ezin hobea da. Zer gustatzen zaigun eta zer ez, zergatik hartzen ditugun erabaki batzuk eta ez bestelakoak eta zergatik pentsatzen dugun era batera eta ez bestera ulertzeko ezinbestekoa da.

Askori gertatu ohi zaigu atzerrira oporretan joan eta maiteminduta bueltatzea. Bila genbiltzan hura kanpoan aurkitu dugula sinestea. Eta burura etortzen zaizkigu umetan errepikatzen zizkiguten galdera inuzente bezain baliogabe haiek: "Ez dagoela hau bezalako herri ederrik?", edota "Hemen baino hobeto, non bizi?".

Atzerrian, bada, milaka lagunek parte hartu duten ikuskizunetan egon naiz, bai egunez, zein gauez. Eta ikusitako eta gozatutako ikuskizun guztietan, bakarrik egon izan banintz bezala izan da. Ikus-entzuleen errespetua entzunez. Inolako paperik, kartelik eta isunik jarri beharrik gabe. Lekuak edota ikuskizunak horrelaxe eskatzen zutela ulertuta.

Etxera bueltan, bi ideiarekin etorri naiz buruan: leku eder eta interesgarri asko dagoela munduan eta horietako batean bizi nintekeela ni neu ere (ezagutzen dudana ez delako denik eta onena), eta asko dugula ikasteko eta hobetzeko geure herri eder honetan ere.

Urrutira joan gabe, ostiralean, Donostiaren 1813-2013 urteurrenaren izenean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Konstituzio plazan eskainitako kontzertu ederrean, berriro etxera bueltatua nintzela sentitu nuen. Inguruko tabernetako eta arkupeetan gelditutako jendeak apenas utzi baitzigun kontzertuarekin gozatzeko.

Tabernariak ere bizimodua atera behar dutela gogorarazi zidan norbaitek. Kontua da, bizimodua ondo irabazteko, epe luzerako eraginak ekoitzi behar direla; jendea, maiteminduta, hemen biziko litzatekeela pentsatuz etxeratu dadin lortzea, kasu.

Ana Urkitza
Deia
(Moldatua)

Idea nagusiak eta bigarren mailakoak (eskema moldean, zenbaki gabe)

- Atzerrira joatea ona: lekuak ezagutzeko, pertsonak, kulturak eta bai norbere burua ere
 - Atzerritik maiteminduta itzuli asko, umetako esames topikoak gaindituta
- Idazleak, atzerrian egondako ikuskizunetan, ikus-entzuleen errespetuzko portaera konprobatu
 - Ekarrirako sentsazioak: munduan leku eder asko dagoela eta guretzat eredu
 - Ostera, EOSen Konstituzio plazako kontzertuan, inguruko jendearen portaeran gure gabeziak agerian
 - Taberna giroa-eta argudio eskasa, horrela ez baitira bisitariak gurearekin maitemintzen

Laburpena

Esperientzia ederra da atzerrira bidaiatzea, ereduak ezagutzeko eta geureekin erkatzeko. Eta gertatu ohi zaigu hangoekin liluratuta itzultzea, umetako topikoak gaindituta: gureak bezalakoak inon ez, eta abar.

Idazleak, atzerrian egondako ikuskizun jendetsuetan, ikus-entzuleen errespetuzko portaera konprobatu ahal izan du, berezkoa; horrek sentiarazi dio munduan non bizi leku ederrak badirela eta guretzat eredugarriak. Baina etxera itzuli eta ez du horrelakorik antzeman; kasurako, EOSen Konstituzio plazako kontzertuan, inguruko taberna giroan gelditutako jendea ikuskizunarekin gozatzeko traba izan zen, eta horrela ez gara erakargarri gertatzen bisitariarentzat.